BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4034

AGINDUA, 2015eko irailaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Elgoibarko udalerrian Maalako 2.A eremuko 2.A.2 Uparitzaga 16 azpieremuan, 16 babes ofizialeko etxebizitza esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duena eta hainbat zehaztasun finkatzen dituena.

GERTAKARIAK

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eta Elgoibarko alkate-udalburuak hitzarmena sinatu dute, 2015eko abuztuaren 14an, Elgoibarko udalerrian Maalako 2.A eremuko 2.A.2 Uparitzaga 16 azpieremuan, 16 babes ofizialeko etxebizitzen esleipendunak Etxebide-Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoak aukeratu ditzan.

2.– Aipatutako hitzarmenean ezartzen da, esleipen-prozedura etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduan ezarritakoari jarraituz egingo dela.

3.– Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-ordezkariaren 2015eko irailaren 18ko Ebazpenaren bidez, babes ofizialeko behin-behineko kalifikazioa eskuratu du Elgoibarko udalerriko Maalako 2.A eremuko 2.A.2 Uparitzaga 16 azpieremuko 16 babes ofizialeko etxebizitzako sustapenak. Sustapen hau Amenabar Eraikuntzak, S.A.k sustatzen du, eta EB3-0808/15-LE-000 da bere espediente-zenbakia. Etxebizitza horietako bat, bi logeletakoa, mugikortasun urri iraunkorra duten elbarriei egokitutakoa da. Gainontzeko 15 etxebizitzetatik, 8 bi logelakoak dira, eta 7 hiru logelakoak. Etxebizitzak lagatzeko araubidea jabetza izango da.

4.– Sustapen horretako etxebizitzetatik bat esleipen-prozedura orokorretik kanpo utziko da, birkokapenetarako Elgoibarko Udalak egindako eskaera aintzat hartuz. Kanpo utziko den etxebizitza behin-behineko kalifikazioaren arabera 13 zenbakia daukana izango da, hiru logelakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari dagokio honako agindu hau ematea, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 29. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Babes publikoko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 18. artikuluan jasotzen denaren arabera, lehen eskualdatzeko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu behar direnean, bizikidetza-unitatea osatzen duen titularretako bat gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egongo da, kasuan kasuko araudiak ezarritako gutxieneko antzinatasunarekin.

3.– Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatuko diren urteko diru-sarrera haztatuen mugak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko irailaren 14ko Aginduan ezarritakoak izango dira.

4.– 39/2008 Dekretuaren 22. artikuluan jasotzen denaren arabera, diru-sarrerei dagokienez kontuan hartu beharreko epealdia honakoa izango da: zergaren aitorpena egiteko epea amaitu ondoren, esleipen-prozedurari hasiera emateko aginduaren argitalpen-dataren aurreko azken zergaldia.

5.– Arestian aipaturiko 2012ko urriaren 15eko Aginduak ezartzen du, pertsonek edo bizikidetza-unitateek babes ofizialeko etxebizitzen esleipen prozeduretan parte hartzeko, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta egon beharko dutela. Baldintza hori betez gero, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatzeko eskaeran adierazitako udalerrietan zein horien eremu funtzionaletan egindako esleitze-prozeduretan parte hartu ahal izango dute, hori eragozten duen arau- edo hitzarmen-xedapenik ezean.

6.– Agindu horretan honako hau ere esaten da: prozeduran sartzea borondatezkoa izango dela, eta hasierako aginduan zehaztutako epean eta bitartekoaren bidez egin beharko dela. Egokitutako etxebizitza bat eskuratzeko interesa ere adierazi ahal izango dute era horretako etxebizitzak esleitu gabe geldituz gero.

7.– Esleitzeko modua egoeren araberakoa izango da: prozeduran sartutako eskatzaile-kopurua sustapeneko etxebizitza kopurua baino handiagoa bada, esleipena notarioaren aurreko zozketa publiko bidez egingo da, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 31. artikulutik 41.era jasotzen den prozeduraren arabera. Aldiz, etxebizitza-kopurua eskatzaileena baino handiagoa bada, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak notarioaren aurrean ordenatuko ditu etxebizitza-eskaerak, eta etxebizitzak 42. artikulutik 44.era jasotzen den prozeduraren arabera esleituko dira.

Aipatutako lege-xedapenak eta, oro har, gai honetan erabilgarri diren gainerakoak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Elgoibarko udalerrian Maalako 2.A eremuko 2.A.2 Uparitzaga 16 azpieremuko babes ofizialeko 16 etxebizitzen esleipenari hasiera ematea; udalerri hori Eibarko eremu funtzionalean kokatzen da. Etxebizitzetatik 1 esleipen-prozedura orokorretik kanpo utziko da birkokapenetarako, Elgoibarko Udalak egindako eskaera aintzat hartuz.

Kanpo utziko den etxebizitza, behin-behineko kalifikazioaren arabera 13 zenbakia daukana izango da, hiru logelakoa.

Bigarrena.– Sustapen honetako etxebizitzak lagatzeko araubidea jabetza osoa izango da.

Hirugarrena.– Esleipen prozeduran honako pertsona edo bizikidetza unitate hauek parte hartu ahal izango dute: Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan 2015eko irailaren 30a baino lehen eroskketan izena eman dutenak, betiere, bertan jasotako baldintzak betetzen badituzte, eta Etxebiden alta emanda badaude sustapen honetako esleipen prozeduran parte hartzeko epea irekitzen denean.

Laugarrena.– Izena emateko eskabidean aukeratutako udalerrietako bat Elgoibar izan beharko da.

Bosgarrena.– Etxebizitzaren titular izango direnetako batek Elgoibarren erroldatuta egon beharko du, prozedurari hasiera emateko agindu hau argitaratzen den eguna baino bi urte lehenagotik, gutxienez, hala jasotzen baita Sailak eta Elgoibarko Udalak sinatutako hitzarmenean.

Seigarrena.– Eskatzen da egiaztatzea 2014. urteko zergaldiko diru-sarrera haztatuak ez direla 9.000 euro baino txikiagoak eta 39.000 euro baino handiagoak. Mugikortasun murriztua duten desgaituek, desgaitu psikikoek edo genero-indarkeriaren biktima direnek nahikoa dute 3.000 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea.

Zazpigarrena.– Esleipen-prozeduran parte hartu ahal izango dute agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den datan agindu honetan eta aplikatu beharreko arauetan aurreikusten diren baldintzak betetzen dituzten pertsonek eta unitateek, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan erosketa-erregimenean inskribatuta badaude. Aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonek edo bizikidetza unitateek sustapen honetako esleipen prozeduran parte hartu nahiko balute, 2015eko abenduaren 9a eta 23a bitartean (biak barne) dagokion inprimakia aurkeztu beharko dute:

– Aurrez aurre: Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzua-Zuzenean, Andia 13, behea, 20004 Donostia.

– Postaz: Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan, Andia 13, 5. solairua, 20004 Donostia.

Zortzigarrena.– Sustapeneko etxebizitzetatik bat mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonei egokituta dago; etxebizitza bi logelakoa da. Etxebizitza hori, mugikortasun mugatu iraunkorra duen pertsona bat dagoen bizikidetza unitateen artean esleituko da.

Etxebizitza hori honako ordenan esleituko da: lehenik eta behin, egokitutako etxebizitza gurpil-aulkian dauden pertsonei esleituko zaio, gero bi makulu nahitaez behar dituzten pertsonei eta, azkenik, 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskinaren D) eta H) bitarteko paragrafoekin lotuta 7 puntu edo gehiago dituztenei.

Etxebizitza egokitua esleitu gabe geratuko balitz, mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonarik ez dagoen bizikidetza unitateen artean esleituko da, baldin eta egokitutako etxebizitza bat eskuratzeko interesa adierazi badute.

Bederatzigarrena.– Egokitu gabeko 15 etxebizitzetatik 8 bi logelakoak dira, eta 7 hiru logelakoak.

Hamargarrena.– Eskatzaile-kopurua sustapeneko etxebizitzen kopurua baino handiagoa denean, esleipena notarioaren aurreko zozketa bidez egingo da, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 31. artikulutik 41.era jasotzen den prozeduraren arabera.

Etxebizitza kopurua eskatzaileena baino handiagoa bada, Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak notarioaren aurrean ordenatuko ditu etxebizitza-eskaerak, eta etxebizitzak agindu horretako 42. artikulutik 44.era jasotzen den prozeduraren arabera esleituko dira.

Hamaikagarrena.– Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, etxebizitza-esleipenak eta itxaron-zerrendak Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren (Zuzenean) iragarki-oholetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-ohol elektronikoan (www.euskadi.eus > egoitza elektronikoa > iragarki-taula) argitaratuko dira.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke, hilabeteko epean, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa hasieratik, zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 18a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
ANGEL TARSICIO TOÑA GÜENAGA.